

# Musikal bilakatuko dute Toti Martínez de Lezearen 'Bretxa' nobela historikoa

«Ez da bakarrik izango nobela bat taularatzea. Drama hura kontatu nahi dugu gaur arte kontatu ez den bezala», adierazi zuen Oihan Vegak

## NEREA AZURMENDI

**Donostia.** Orain dela 16 urte argitaratu zen 'La Brecha' eleberrian modu gordin eta zehatzean deskribatu zuen Toti Martínez de Lezea idazleak 1813an Donostia setiatu eta suntsitu zutenekoa. Berriki Ereinek eman du argitara eleberririk berria 'Toti Martínez de Lezea biblioteka' ekimenaren baitan, «azken urteetan ikasi dudana esker hobetua, orain orduan baino hobeto idazten baitut», egileak berak atzo Donostian egin zen aurkezpenean esan bezala.

'Bretxa' euskarazko itzulpena ere Ereinek ekarri du, Miren Arratibelen eskutik. Toti Martínez de Lezeak azaldu zuenez, beretzat opari bat dela euskaraz kaleratzen dioten liburu bakoitza, euskara delako bere hizkuntza, nahiz eta ez izan euskaraz idazteko gai.

Ekitaldi berean eman zituzten proiektu handi baten lehen zertzeladak, 'Bretxa' oholtzara helduko baita, formatu handiko musikal bilakatuta, Bergara Antzerki Musikala Elkarte eta Bergarako Musika Eskolaren eskutik, Donostia, Lasarte-Oria, Zarautz edota Irungo zenbait elkarteren eta garaiko Donostiaz asko dakiten adituen laguntzarekin. Oihan Vegak eta Valen Moñuxek eman zuten 2023ko urtarrilaren 13an Victoria Eugenia antzokian estreinatuko den ikuskizunaren berri.

'La Brecha/Bretxa' eleberria oso ezaguna da. Oinarritzen den pa-



Oihan Vega, Toti Martínez de Lezea eta Valen Moñux, eleberriarekin eta musikalaren kartelarekin. **usoz**

**Miren Arratibelek euskaratu du, eta Ereinek plazaratu, Martínez de Lezeak orain dela 16 urte argitaratu zuen nobela**

**Agertokian 150 pertsona bilduko dituen ikuskizuna 2023ko urtarrilaren 13an estreinatuko da Donostiako Victoria Eugenia antzokian**

sarte historikoa ere bai: 1813ko abuztuko 31ko sarraskia, hain zuzen, non frantsesek setiatuta zeuzkaten donostiar haiek kalera irten ziren 'askatzaile' ingeles eta portugaldarrei harrera egiteko asmoz, eta oso bestelako erantzuna izan zuten: hilketak, lapurretak, bortxaketak eta, azkenean, kale bat izan ezik hiribildu osoa suntsitu zuen sutea.

### Herri xehea protagonista

Uxue Razkin Erein etxeko editoreak nabarmendu zuenez, Toti Martínez de Lezearen eleberririk gehienak historikoak dira, baina idazle arabarrak giza emozioei

### BRETXA TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

Itzultzailea: Miren Arratibel.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 336.  
Salneurria: 21 euro.



erreparatzen die bereziki, eta herri xehearen bizipenei. 'Bretxa'-ko protagonista, esaterako, ez da militar bat, ez da agintari bat, Maritxu Altuna txokolategi baten jabearen alaba baizik. «Nobela historikoetan badira jeneralak, badira gerrako pasarteak, baina herritarrek ez gara ia azaltzen His-

toria handian, eta nire asmoa zen donostiarrek beraiek kontatzea historiaren zati bat, batez ere emakumeek», adierazi zuen idazleak.

Dagoeneko nahikoa aurreratu dagoen musikala ere ildo horretatik joango da, egokitzapenaren egile eta zuzendari diren Oihan Vega -bereak dira musika zein kanten hitzak, propio ikuskizunerako sortuak- eta Valen Moñuxek nabarmendu zuten. «Herritarren bizitzan zentratuko da», alegia, Toti Martínez de Lezeari orain dela bospasei urte aurkeztu zioten proiektua, jada errealitate izateko bidean dena. «Zorabata zaudete, baina etxe honetan ongi-etorriak dira zoroak», erantzun omen zien idazleak beren asmoen berri emateko bisitan joan zitzaizkionean.

### Gertatu zenaren isla

Ikuskizuna askoren arteko ekimena izango da, eta oinarrian izango du bergararrek munta handiko musikalak ekoizten daukaten 30 urteko eskarmen-tua. «Ez da bakarrik izango nobela bat taularatzea. Drama hura kontatu nahi dugu gaur arte kontatu ez den bezala», adierazi zuen Vegak. Azaldu zuen, halaber, bi irizpide nagusi izan dituztela eleberria oholtzarako egokitzean: «Badaude kontzesio artiskikoren batzuk, baina erabat errespetatu ditugu eleberria, gertakizunak eta protagonistak. Kronologikoki eta historikoki gauzak izan ziren bezala errespetatu ditugu».

Alde horretatik, eta gaiak berak horrelako hurbilketa eskatzen duelako, oso errealista izango da eszenografiaren, jantzien eta giroketaren aldetik. Errealismoa indartzeko, garai hartako Donostia ikusi ahal izango da 3Dn, pantaila handi batzuen bidez, «inoiz ikusi ez den bezala», eta «%85a euskaraz izango bada ere, pertsonaia bakoitza bere hizkuntzan ariko da: euskaraz herritarrek, ingelesez, frantsesez edo portugesez militarrek, eta gazteaniz elkarren artean hitz egiten dutenean».

**RE  
CE  
TAS** EN 1 MIN.

Especial recetas  
en 1 minuto  
de [diariovasco.com](http://diariovasco.com)

Más información